

Getariako txakolinaren festa handikiro ospatu zen atzo, eta Mahasti Jaun izendatu Hilario Arbelaiz eta Martin Berasategi sukaldariak

Txakolinaren Ibilbidea sortuko da laster

FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. DV. Udaberriariko nahi da martxan jarri Aia, Zarautz eta Getariako txakolindegia lotuko dituen ibilbide berria, izen hau jarriko zaiona: Getariako Txakolinaren Ibilbidea. «Autoz nahiz oinez txakolindegia bisitatzeko modua eskaini nahi dugu. Seinaleak egongo dira, eta bisitariek txakolina erosteko aukera izango dute upategi guztietan», adierazi zuen atzo Getariako Txakolina Jatorri Izendapeneko idazkari Ruth Mozosek, Txakolin Eguna-
ren aurkezpen-ekitaldian. San Anton egunez, betiko moduan, handikiro ospatu zen txakolin-uzta berriaren festa. Eguraldia lagun zela, getariarrez gain ehun-ka bisitari azaldu ziren pilotalekura hamazazpi upategietako txakolinak dastatzera.

Urtero bezala, Mahasti Jaun berriak izendatu ziren Txakolin Egunean, bi lagun eta biak sukaldariak: Hilario Arbelaiz eta Martin Berasategi. Izendapeneko eskultura jaso eta gero, Oiarz-
tzingo sukaldariak eskerrak eman zizkien aurrean eserita



Berasategi eta Arbelaiz omendu zituzten atzo. (DAVID APREA)

zitzen txakolingileei. «Eskerrak eman nahi dizuet holako produk-
tua egiten duzuelako. Azken urte-
otan zenbat hobetu den txakolina»,
esan zuen.

Martin Berasategi honela min-

tzatu zen, erdia euskaraz, beste
erdia gaztelaniaz: «Urtero etor-
tzen naiz festa honetara, probatu
dut aurtengo txakolina eta mun-
diala dago. Reala salbatuta ikus-
ten dut. Hainbeste osasun-erre-

bisio egin beharrean, utzi alde
batera txorrada horiek eta hobe
jokalariak Getariara azalduko
balira».

Ondoren, Goiatz Lazkano nes-
katilak aurrekua dantzatu zien,
eta herriko abesbatzako lagunek
Txakolin kanta ezaguna eskaini,
Gure Txeru taldeko gaztetxoek
dantza egiten zuten bitartean.
Abesbatzako kideetako bat Itziar
Aizpuru zen, Martin telesailen
amonarena egiten duen aktore
beteranoa.

Hilario Arbelaizek plater
berria sortu zuen lehengo azaro-
an tartean txakolina daukana, eta
hona hemen bere azalpena: «Zera
da, arroz bat kremosoa itxasoko
gauza batzuk dakartzana. Eta oli-
tan buelta bat eman ondoren,
arroz horri txakolina botatzen
diot». Makina bat omenaldi jaso-
tzen ari da oiartzuarra: «Lehe-
nengo, Irunen, aspaldi, izokiaren
kofradiak egin zidan omenaldi,
eta gero sagardoa, babarruna,
zainzuria, antxoa... horiek denek
egin naute kofrade».

Martin Berasategik ere behin
baino gehiagotan txertatu du tx-
akolina bere sorkuntza berrietan.

«Nire azkeneko postreak ere tx-
akolina dakar -esan zigun atzo-
'naranja eta txakolin-gelatina' du
izenan». Lasarteko sukaldariaren
ustez, «hainbeste egin du aurre-
ra txakolinak, orain guztiok harro
gauzka».

Pintxo lehiaketa

Bertaratutakoek Aia, Getaria eta
Zarauzko hamazazpi txakolinde-
giatako botilak izan zituzten auke-
ran, pintxoak ere eskaintzen zire-
larik. Bezperan II. Pintxo Lehi-
aketa egin zen, herriko bost
tabernak parte hartu zutelarik.
Irabazle, azkenean, Mahasti tabe-
rna gertatu zen.

Txakolingileak igo ziren tran-
palora uzta berria dastatzeko
garaia iritsi zenean eta, denen
aurrean, Iñaki Txueka, Txomin
Etxaniz upategikoa eta Getaria-
ko Txakolina Jatorri Izendape-
neko lehendakaria. «Zorionak eta
urte askotarako» egin zien oihu
pilotalekuko karpa barruan ziren
herriar ugariel. Eta ondoren,
kazetariaren aurrean, hauek esan
zituen, besteak beste: «Garran-
tzietsuena azpimarratu behar da
hemen, eta zera da garrantzi-
tsuena, Getariako txakolingileok
oso txakolin ona egiten ari gare-
la azken urteotan. Kalitatea gora-
ka doa eta proiektu berriak ditu-
gu Kontseiluan», esan zuen lehen-
dakariak.

Aurtengo uzta bi milioi botila-
koa izango da. Bestalde, laz hasi-
tako ardo apardunak segimena
izango du aurtan, eta ekoizpen
handiagoarekin gainera, hiru
aldiz handiagoa, alegia. ■



Herritar batzuk uzta berria ospatzen. (DAVID APREA)

Argiñano ya ha plantado sus vides

F.I.

Entre el público asistente a la fiesta del Txakolin Eguna de ayer en Getaria se encontraba el cocinero Karlos Argiñano, quien tiene pensado dedicarse también a la viticultura y a la elaboración de txakoli.

«He comprado un caserío en Aia, que se llama Estenaga, con mucho terreno», comentó ayer el televisivo cocinero. «Y ya hemos hecho la plantación de vides; son 35.000 plantas en total, y queremos tener un viñedo de diez hectáreas. En este proyecto nos hemos im-